

IRAKASKUNTZA-GIDA

2013/14

Ikastegia

160 - Gizarte Langintzako Unibertsitate Eskola

Zikl.

Zehaztugabea

Plana

GTRABA10 - Gizarte Langintzako Gradua

Ikastaroa

1. maila

IRAKASGAIA

25941 - Filosofia eta Gizarte Langintza

ECTS kredituak: 6

GAITASUNAK / AZALPENA / HELBURUAK

DESKRIBAPENA:

Irakasgai honek gizarte langintzaren jarduera sustatzen duten teoriak eta praktikak elikatzen dituzten oinarri kulturalak eta diziplinarrak modu erreflexibo eta kritikoan aztertzea ahalbidetzen duen bigarren ordenuko hausnarketa (hots, hausnarketa filosofikoa) eremu bat eskaintzen du. Horren arabera, gizarte langintzari aplikatutako hausnarketa filosofikoa, gizarte langintzaren funts orokor, edo oinarrizkoen azterketan zentratuko da.

HELBURUAK:

"Filosofia eta Gizarte Langintza" irakasgaiaren helburu nagusia, edo orokorra, ikasleen etorkizuneko jarduera profesionalaren garapen arduratsuago, zilegiago eta eraginkorragoa ahalbidetzea izango da, lanbidearen oinarri kritiko, sozio-etiko, epistemologiko eta antropologikoen gaineko funtsezko ezagutzak eta gaitasunak eskainiz. Helburu hori asetzeko, ondorengo helburu estrategikoei helduko zaie:

- gizarte langileen perspektibak, erabakiak eta praktikak askotan agerikoa ez den moduan eragiten dituzten gizaberearen eta gizartearen gaineko hainbat ideien eta ikuspegienginguruko hausnarketa eremuak sustatzea, eta
- etorkizuneko jarduera profesionala baldintzatuko dituzten oinarriekiko jarrera kritikoagoa eta arduratsuagoa garatzea ikaslearen artean.

GAITASUNAK:

Orokorrak:

- Lehendik dauden edo orain sortzen ari diren gizarte-gertakari, -errealitate eta -arazoak ezagutzea, ulertzea eta horiei buruzko gogoeta kritikoa egitea, pertsonekin, taldeekin, erakundeekin eta komunitateekin lanean jarduteko trebetasunak garatzeko.
- Gizarte-langintzaren funtsekin, metodologiarekin, ereduarekin eta teknikekin lotutako ezagutzak eskuratzea eta aplikatzea, egoerak eta arazoak aztertzeke eta pertsona, familia, talde eta komunitateekin batera gizarte-langintzaren jardunaren diagnostikoa eta plangintza egiteko, berori egikaritzeko eta ebaluatzeke helburuarekin.
- Pertsonen herritar moduan dituzten eskubide eta betebeharrak begira kontzientzia har dezaten laguntzeko trebetasunak garatzea, ahalmentzeko, nor bere autonomia erdiesteko eta antolatutako herritarren ekimenak lortzeko baldintzak sortzeko asmoz.
- Erakundeen gizarte-erantzukizuna eta etika profesionala indartzea; horretarako, kalitate-irizpideak eta gainbegiratze profesionalerako protokoloak aplikatu beharko dira.
- Lanbidea egikaritzeko beharrezko trebetasunak garatzea. Azpimarratzekoak dira kritika eta gogoetarako gaitasuna, analisirako gaitasuna, harremanetarako gaitasun komunikatiboak, eta taldean eta sarean lan egiteko gaitasuna; betiere, generoa, kulturartekotasuna, landatartasuna, eta pareko ikuspegi inklusiboak txertatuta.

Espezifikoak:

- Gizakiak testuinguru sozialean duen portaera eta pertsonaren eta ingurunearen arteko harremana baldintzatzen dituzten funtsezko prozesu eta osagaiak, zein azken hauen gainean gizarte zientzietako diziplina bakoitzak dituen perspektibak ulertzea.
- Auto-ezagutzarako gaitasuna garatzea (norberaren balioak, jarrerak eta eskema kognitiboak identifikatzeko), eta etorkizuneko jardun profesionala modu objektiboan eta giza eskubideak errespetatuz burutzea ahalbidetuko duen enpatia sustatzea.

- Etika eta deontologia profesionalaren oinarritzko gaiak identifikatzea, erantzukizuna eta etika profesionala indartuz.

Zeharkakoak:

- Dilema etikoak identifikatzea eta horien gainean hausnartzea, balioak mahaigaineratuz eta dilemen analisisan printzipio etikoak aplikatuz.

GAI ZERRENDAA

1. SARRERA: FILOSOFIAREN EKARPENAK GIZARTE LANGINTZARI

- 1.1. Zer da filosofia?
- 1.2. Filosofia: bigarren ordenuko jakintza
- 1.3. Filosofia eta gizarte langintza: oinarrien azterketa

2. FILOSOFIA GIZARTE LANGINTZAREN IKASKETETAN: PENTSAMENDU KRITIKOAREN GARRANTZIA JARDUERA PROFESIONALARENTZAT

- 2.1. Filosofia eta pentsamenduaren kalitatearekiko konpromisoa
 - 2.1.1. Filosofia pentsamendu kritiko lez
 - 2.1.2. Pentsamendu kritikoaren beharra gizarte langintzan
- 2.2. Pentsamendu kritikoa eta gizarte langintza: argudiaketaren oinarriak
 - 2.2.1. Logika, dialektika eta erretorika
 - 2.2.2. Logikaren oinarritzko kontzeptu batzuk
 - 2.2.2.1. Argudioen oinarritzko osagaiak: premisak eta ondorioa
 - 2.2.2.2. Argudiaketaren forma eta edukia (egia eta baliozkotasuna)
 - 2.2.2.3. Argudio inductiboak eta deductiboak
 - 2.2.3. Argudiaketaren falaziak
 - 2.2.3.1. Falazia formalak
 - 2.2.3.2. Garrantziaren printzipioa hausten duten falaziak
 - 2.2.3.3. Argitasunaren printzipioa hausten duten falaziak
 - 2.2.3.4. Nahikotasunaren printzipioa hausten duten falaziak

3. ZIENTZIAREN DIMENTSIO MORALA: ETIKA ETA GIZARTE LANGINTZA

- 3.1. Etikaren aztergaia
 - 3.1.1. Morala eta etikaren arteko oinarritzko bereizketa
 - 3.1.2. Gizakiaren dimentsio morala
 - 3.1.3. Etika eta jakintza praktikoak
- 3.2. Arau moralak eta bestelako arauak
 - 3.2.1. Morala eta zuzenbidea
 - 3.2.2. Morala eta erlijioa
 - 3.2.3. Morala eta harreman sozialen arauak
- 3.3. Ongia eta gaizkia argituz: zenbait proposamen etiko
 - 3.3.1. Etika deontologikoa (betebeharrak eta eskubideak)
 - 3.3.2. Etika utilitarista (ondorioak)
 - 3.3.2.1. Ekintzen utilitarismoa eta arauen utilitarismoa
 - 3.3.3. Bertuteen etika
 - 3.3.3.1. Zainketaren etika
 - 3.3.4. Botereari buruzko azterketa
- 3.4. Gizarte langintzaren printzipioak
 - 3.4.1. Sarrera: benefizentzia, autonomia, eta justizia
 - 3.4.2. Benefizentzia eta autonomiaren arteko harreman zailak
 - 3.4.2.1. Benefizentzia paternalista
 - 3.4.2.2. Benefizentzia anti-paternalista
 - 3.4.2.3. Benefizentzia ez-paternalista
 - 3.4.2.3.1. Konfidentziasuna, eta informatutako baimena
 - 3.4.3. Justizia printzipioa gizarte langintzan
 - 3.4.3.1. Gizarte langintzaren izaera eraldatzailea

4. EZAGUTZAZKO JARDUERA ZIENTZIAN: EPISTEMOLOGIA ETA GIZARTE LANGINTZA

- 4.1. Sarrera: teoriaren garrantzia gizarte langintzan
- 4.2. Gizarte zientzien epistemologia
 - 4.2.1. Objektuak eta subjektuak

- 4.2.1.1. Perspektiba objektiboa
- 4.2.1.2. Perspektiba subjektiboa
- 4.2.2. Ordena eta gatazka gizartean
 - 4.2.2.1. Erregulazioa eta ordena
 - 4.2.2.2. Gatazka eta aldaketa
- 4.3. Gizarte langintzaren paradigmen taxonomia
 - 4.3.1. Paradigma funtzionalista
 - 4.3.1.1. Gizarte langintza konduktista
 - 4.3.2. Paradigma interpretatzailea
 - 4.3.2.1. Erabiltzailean zentratutako gizarte langintza
 - 4.3.3. Paradigma humanista erradikala
 - 4.3.3.1. Gizarte langintza praktika erradikala lez
 - 4.3.4. Paradigma estrukturalista erradikala
 - 4.3.4.1. Gizarte langintza marxista

5. GIZAKIAREN IDEIA

- 5.1. Gizakia: natura eta kulturaren artean
 - 5.1.1. Gizakiaren oinarriko ezaugarri ebolutiboak
 - 5.1.2. Abere kulturala
 - 5.1.2.1. Sinboloa eta interpretazioa
 - 5.1.2.2. Herentzia eta moldatze kulturalak
- 5.2. Gizaki modernoa
 - 5.2.1. Tradizioa eta indibidualismoa
 - 5.2.2. Modernitate erreflexiboa
 - 5.2.2.1. "Arriskuaren gizartea" eta gizarte langintza
 - 5.2.2.2. Konfiantzaren garrantzia dinamika eta arrisku sozialen gobernaketan

IRAKASKUNTZA MOTAK

| Eskola mota | M | S | GA | GL | GO | GCL | TA | TI | GCA |
|--|------|---|------|----|----|-----|----|----|-----|
| Ikasgelako eskola-orduak | 45 | | 15 | | | | | | |
| Ikaslearen ikasgelaz kanpoko jardueren ord. | 67,5 | | 22,5 | | | | | | |

Legenda: M: Maistrala S: Minteoria GA: Gelako p. GL: Laboratediko p. GO: Ordenaailuko p.
GCL: P. klinikoak TA: Tailerra TI: Tailer Ind. GCA: Landa p.

Argibideak:

EBALUAZIOA

- Garatu beharreko azterketa idatzia
- Praktiak (ariketak, kasuak edo buruketak)
- Banakako lanak

Argibideak:

Irakasgai honetan hiru ebaluazio sistema daude:

1) Ebaluazio jarraiaren sistema: ebaluazio sistema hau idatzizko hiru frogez osatuta dago. Froga bakoitza ikasgaiaren gai edo gai multzo nagusietako bati dagokio: (i) 2.G, (ii) 3.G, eta (iii) 4&5.G.

Froga hauek ikasgaiaren azken notaren %90a ordezkatzeko dute. Hau da, idatzizko froga bakoitzak azken notaren %30 balio du. Gutxienez hiru frogetako bi gainditu beharko dira irakasgaia gainditzeko.

Idatzizko froga bakoitza gainditzeko gutxienez 1,5eko bat lortu beharko da (gehieneko 3ko nota baten arabera).

Azken notaren gainerako %10a ikasleak klasean egindako lanaren eta izandako portaeraren arabera erabaki eta ezarriko da.

Ebaluazio sistema jarraiarri heltzea erabakitzen duen ikasleak klase presentzialen %75ean parte hartu beharko du.

Gainera, klasean portaera desegokia duen ikasleari azken notatik puntu baterainoko penalizazioa aplikatu ahalko zaio.

Ohiko deialdian irakasgaia gainditzeko beharrezkoak diren goian aipatutako baldintzak betetzen ez dituzten ikasleek, gai guztiak jasoko dituen idatzizko froga egin beharko dute ez-ohiko deialdian, nahiz eta idatzizko froga partzialtako bat edo batzuk gainditu izan.

2) Ebaluazio finalaren sistema, A modalitatea: ebaluazio jarraiaren sistemari heldu nahi edo ahal ez dioten ikasleek ikasturtean zehar landutako gaiak jasotzen dituen azterketa finala egiteko aukera izango dute.

Gainera, azterketa egunerako (edo lehenagorako), ikasleak, irakaslearekin ikasturtearen hasieran adostu beharreko lan edo lan/ariaketa multzo bat prestatu beharko du. Edozein kasutan, azken nota idatzizko frogaren (azterketaren) arabera izango da, eta lana bi kategorien arabera bakarrik ebaluatuko da: "Gai" edo "Ez-Gai". Beharrezkoa izango da "Gai" kalifikazioa lortzea ikasgaia gainditzeko, azterketa finalean gutxienez 5eko bat ateratzearekin batera.

Ebaluazio sistema hau jarraitu behar duen ikasleak ikasgaiaren lehen bi asteak bukatu aurretik jakinarazi beharko dio bere asmoen berri irakasleari. Horrelakorik ematen ez bada, irakasleak, ikasleak ebaluazio jarraia sistema helduko diola ulertuko du. Ebaluazio sistemaz ikasturtean zehar aldatzea ez da posible.

3) Ebaluazio finalaren sistema, B modalitatea: sistema honek, 2013/14 ikasturteari dagokion graduko ikasketen gestiorako araudiaren 43. artikuluan ("Ebaluazio metodoak") onartu eta arautzen denak, ondorengo ezartzen du: "Ikasleari, justifikatutako arrazoiengatik (lanari lotutako arrazoiak, genero indarkeriaren biktimak, erditzea, adopzioa, ume harrera edo hiru urtetatik beherako seme-alaba edo minusbaliatutako pertsonak izatea bere kargura; %33ko ezintasun maila edo handiagoa duten ikasleak; goi-mailako kirolaria; bidaiak edo denbora asko eskatzen duten kultur eta arte-jarduerak; goi mailako beste ikasketa batzuekiko bateragarritasuna; eta mota desberdinetako karguekiko bateragarritasuna: kargu politikoak, sindikalak, ikasleen ordezkariak, elkarteetakoak, GKEkoak edo beste batzuk) ezin bazaio egin etengabeko ebaluazioa, bukaerako proba bakarra egingo zaio, irakasgaiko jakintzak eta gaitasunak bereganatu dituela egiazta dezan. Proba horrek, egiten den moduan egiten dela, irakasgaiko notaren %100 balio beharko du."

NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

Moodle plataforma birtualean ikasturtean zehar argitaratuko diren materialak ("power point"-ak, ariketak, eskemak, testuak, etabar).

BIBLIOGRAFIA

Oinarrizko bibliografia

- Ayala, F. J., 1980, Origen y evolución del hombre, Madril: Alianza, 1995.
- Beck, U., 1986, La sociedad del riesgo: hacia una nueva modernidad, Bartzelona: Paidós, 1998.
- Beckett, C., Maynard, A., 2013, Values and Ethics in Social Work (bigarren argitalpena), Londres (et al): Sage.
- Benton, T, Craib, I., 2001, Philosophy of Social Science. The Philosophical Foundations of Social Thought, Houndmills, Basingstoke, Hampshire; New York: Palgrave Macmillan.
- Bermejo, F., La ética del trabajo social, Bilbo: Desclée de Brouwer, 2002.
- Bordes Solanas, M., Las trampas de Circe: Falacias lógicas y argumentación informal, Madril: Cátedra, 2011.
- Cassirer, E., 1944, Antropología filosófica, Madril: FCE, 1983.
- Consejo General del Trabajo Social, 2012, Código deontológico del trabajo social.
- Cortina, A., Martínez, E., 2001, Ética, Madril: Akal.
- Gibbs, L., Gambrill, E., 2002, Critical Thinking for Social Workers: Exercises for the Helping Professions, Thousand Oaks, CA: Pine Forge Press.
- Giddens, A., 1990, The Consequences of Modernity, Stanford, CA: Stanford University Press.
- Hollis, M., 1998, Filosofía de las ciencias sociales. Bartzelona: Ariel.
- Horn, T., 2011, Is It Ethical? 101 Scenarios in Everyday Social Work Practice. A Discussion Workbook, Harrisburg, PA: White Hat Communications.
- Howe, D., 1999, Dando sentido a la práctica. Granada: Ed. Maristán.
- Morán Carrillo, J.M., 2007, Fundamentos del trabajo social: trabajo social y epistemología, Valentzia: Tirant lo Blanch.
- Reamer, F. G., 2006, Social Work Values and Ethics (tercera edición), New York: Columbia University Press.
- Webb, S.A., 2006, Social Work in a Risk Society: Social and Political Perspectives, Basingstoke; New York: Palgrave Macmillan.

Gehiago sakontzeko bibliografia

- Ander-Egg, E., 1996, Introducción al trabajo social (bigarren argitalpena), Madril: Siglo XXI.
- Beck, U., Giddens, A., Lash, S., 1994, Reflexive Modernization. Politics, Tradition and Aesthetics in the Modern Social Order, Stanford, CA: Stanford University Press.
- Howell, T., Kemp, G., 2010, Critical Thinking: A Concise Guide (hirugarren argitalpena), Londres; New York: Routledge.
- Cassirer, E., 1923-29, Filosofía de las formas simbólicas, Mexiko, DF: FCE, 1979.
- Gray, M., Webb, S. A. (eds.), 2010, Ethics and Value Perspectives in Social Work, Houndmills, Basingstoke, Hampshire; New York: Palgrave Macmillan.
- Pinker, S., 2003, La tabla rasa. La negación moderna de la naturaleza humana. Bartzelona: Paidós.
- Reamer, F. G., 1993, The Philosophical Foundations of Social Work, New York: Columbia University Press.
- Reamer, F. G., 2009, The Social Work Ethics Casebook. Cases and Commentary, Washington, DC: NASW Press.
- Rosenberg, A., 1995, Philosophy of Social Science (bigarren argitalpena), Boulder, CO.: Westview Press.
- Salcedo Megales, D., 1998, Autonomía y bienestar: la ética del trabajo social, Granada: Comares.
- Thomson, A., 2009, Critical Reasoning: A Practical Introduction (hirugarren argitalpena), Londres; New York: Routledge.

- Ursua, N., González, J. D., 2006, Introducción a la filosofía de las ciencias humanas y sociales, Mexiko, DF: Ediciones Coyoacán.

Aldizkariak

Journal of Social Work Values and Ethics:

<http://www.socialworker.com/jswve/>

Interneteko helbide interesgarriak

Stanford Encyclopedia of Philosophy:

<http://plato.stanford.edu/>